BARNETIK KANPORA:

GASTEIZKO KOROAZIO AUZOKO ETXESAIL BATEN BERRANTOLATZE ETA BALIOAN JARTZEA

Enbor zaharretik kimu berria:

Gasteizko Koroazio auzoa Urrezko auzo deituriko horietariko bat da, 50 urtetik gora dituzten auzoak hain zuzen ere. 50eko hamarkada amaierako industrializazioaren garaian eraikia, auzo trinko eta dinamikoa da, hiriko biztanleria dentsitaterik altuena duena. Baina denbora ez da debalde pasatzen, eta beste auzo batzuek izan dezaketen kutsu erromantiko, historiko edo monumentalik gabe, urteen poderioz zaharkituta geratzen joan den auzoa da.

Hirien garapen jasangarri baterako barrurantz haztea eta zauriak sendatzea balioan jartzen den momentu honetan, aukera paregabea aurkezten digu Koroazio auzoak dinamizazio, berregituratze, txukuntze eta orokorrean, bizi kalitatearen hobekuntza nabari baten laborategi gisa funtzionatzeko.

gRADU aMAIERAKO IANA:

Ikaslea: **Gilen Txintxurreta Beitia**

Tutorea: **Ula Iruretagoiena Busturia**

aUZO MAILAKO INTERBENTZIOA

Ezaugarriak:

Koroazio auzoa, Errota izenaz ere ezaguna 50 eta 60ko hamarkadetan zehar eraikitako auzoa da, Gasteizek 1950 eta 1975 urtetan zehar jasan zuen hazkunde demografikoari aurre egiteko. 1954ko plan orokorrak hala hola zehazten zuen hiriaren hazkundeak nolakoa izan behar zuen, baina presek etea lurraren jabegoen banaketa zailtasunak trama semierregular baina partzelazio konplexuko auzo batzuk sortu zituen gasteizko muinoaren mendebaldean. Langile eta etorkin auzoa izanik, inbertsio gutxi burutu dira bertan, dekadentzia egoera batera eramanaz, gatazka soziala eta esklusioa bezalako problematikak azaleratuz.

Datuak:

	65 urtetik gorako pertsonak:	Inmigrazio tasa:	Langabezia tasa:
Koroazio auzoa:	%32.5	%16.6	%21
Gasteiz:	%20	%8.8	%12.5

Problematikak:

Ekonomikoki eta kohesio sozialaren aldetik arazo argiak dira. Langabezia tasa altuak eta biztanleriaren parte nabari baten tokiarekiko nolabaiteko lotura ezak integrazio eta aktibazio arazoak sor ditzake. Gizartearen zaharkitzeak ere asko baldintzatzen du auzoko bizitza, zaharra izaniaskotan ez baititu irisgarritasun neurriak betetzen eta adineko jendearen errekurtso ekonomiko mugatuek eta komunitate bizitzan parte hartzeko zailtasunak auzoaren aktibazioa zaildu egiten du.



Gaur egungo egoera:



Potentzialak

Etorkizuneko egoera



1 Errepide sarea:

Etxebizitza irlak errepidez inguratuta daude, gehien gehienetan alde bietan aparkalekuak dituztelarik eta espaloiak nekez iristen direlarik 2.5 metroetara, baita etorbide nagusietan ere.

2 Lurzoruaren okupazioa:

Etxesail ia guztiak oso trinkoak dira eta auzoko lurzoruaren %80 inguru dago eraikita edota elementu pribatizatzaileek okupatuta.

3 Etxebizitza:

Etxesailen perimetroan kokatzen dira, fondogutxikoak izanik gehienetan. Barnealdean patio handiak agertzen dira, lokal komertzialek guztiz okupatuak.

4 Barne hutsuneak

Etxe irlen barrenean zenbait espazio isolatuta geratu dira eraiki gabe. Gehienak erresidualak badira ere, badaude zenbait tamaina handikoak

5 Garajeak:

Edukiera handiko garaje asko daude etxesailen patioetan kokatuta. Auzoko eskariaz gain Alde zaharreko biztanleen autoak goretzeko ereerabiltzen dira garaje hauek. Haietako zenbait, eta baita behe komertzial ugari ere hutsik daude gaur egun.

6 Plaza edo espazio publiko irekiak:

Gasteiz osoan espazio publiko eta berde gutxien duen auzoa da Koroazio auzoa, alde Zaharrarekin batera akaso. Zenbait plaza egon arren, hauen urbanizazio zahar eta kaxkarrak asko mugatzen du haien fintzionaltasuna.

7 Lurzoru ibilgarriagoa:

Bi momentu:

1 Etorkizun hurbila: Egun existitzen diren plazak birkonfiguratu, txukundu, eta hobetu, zenbait kale peatonalizatu eta autoaren presentzia murriztu.

2 Etorkizun erdi-luzea: Etxe irlen artean pasabideak irekiz eta barne hutsuneak konektatuz pabilioi eta garajeak kenduz edo fragmentatuz, irlen barnean plaza domestiko bidezko sare bat egingo litzateke, kasuan kasu batzuk publiko eta beste batzuk pribatu izanik. Barnealde hauetan eta desokupatutako eraikin atalak aprobetxatuz aktibitate berriak sortzeko aukera legoke.

8 Espazio publiko sarea:

Konexio berriek espazio publiko ezberdinen, zaharren eta berrien arteko distantziak erosoago eta atseginago egingo lirateke, hurbiltasuneko jarduerak sustatuz..

aUZO ESTRATEGIA

Auzoaren ezaugarri formal eta sozialak ezagutu ostean, egitura urbanoaren eraldaketa baten bitartez gizartean eragin positiboak dituzten jarduerak aktibatzeko guneak sortzea izango litzateke epe luzerako helburua. Eraldaketa formalaren bidez soilik ezinezkoa da gizarte bat eraldatzea, horregatik parte hartze prozesuek, proiektuaren asimilazioak eta bizilagun, antolatzaile eta erakundeen arteko hartuemana ezinbestekoa da. Edozein aldaketa sozial gizartetik bertatik jaio behar da, ezin da inposatua izan.

Honegatik, proiektuaren hautaketa bideratu duten ataletako bat udalak zein Eusko Jaurlaritzak proiektuaren garapenari ematen dioten trataera inposatzailea da. Hainbat eragileren hitzetan, aldez aurretik erabakitako gidalerro batzuk markatu dituzte erakunde publikoek eta auzokideek haietara egokitu besterik ez dute, negoziatzeko, hitz egiteko eta orokorrean demokratikoki parte hartzeko aukera errealik gabe.

Birgaitze proiektu bat dagoenari tentuz erreparatuz hasi beharra dago, eta hirigintzaz jarduten dugunean, aurreesistentzia hori gizarte aktibo eta dinamiko bat da. Gizarte hau gabe proiektu bat diseinatzea eta betearaztea erealitate praktiko batetik oso urrun dago eta elkarbizitzaren funtsak urratzen ditu.

Hau honela, auzo mailako erabaki serioak hartzen eta urbanizazio eta pabimentazio obrekin hasi aurretik, auzokideekiko parte hartze saioak, bilerak, hizketaldiak eta antzerakoak burutu beharko lirateke, eskari errealen aurrean soluzioak eman ahal izateko, ez iburazko problematika modu teknikoan konpontzeko.

KOROAZIO AUZOA GASTEIZEN



Koroazio Auzoa:
Eskala: 1/5.000

Auzoa Gasteizen:

Hiriaren lehenengo zabalkundeetako bat da, hau XX mendearen erdialdera arte apenas hazia baizen jatorrizko alde zaharretik eta hegoaldeko XIX meneko zabalgunetik. 50 eko hamarkadako biztanleriaren eztandarekin batera hiria azkar batean hasi zen, barneko erronda bezala ezagutzen den errepide zirkularreraino iritsiz.

Egun hiria askozaz ere zabalagoa izanik, Koroazio azoa oso zentrikoa da, alde zaharrari itsatsita eta Zentrotik apenas 10 minutura. Zentraltasun honek teorikoki lituzkeen onurak dena den ez dira auzoan somatzen eta oso zaharkituta dago gaur egun.



Koroazio Auzoa:
Eskala: 1/5.000

Etxebizitzen inplantazio eskema:



ETXEBIZITZA MODULU AURREFABRIKATUA





Zertxa metalikoaren detailea





A formatoa:

Sarrerarekiko perpendikular antolatzen dira bandak, egunekoa hasieran eta gauekoa fondoan.

B formatoa:

Bandak sarrerarekiko paralelo, kasu honetan terraza irekia utzi da kanpo espazio eta negutegi gisa.



KOROAZIO AUZOA GASTEIZEN

Ez lekuak:

Leku edo toki, txoko, egontoki... espazioaz jabetzen garenean sortzen dugun babes elementu bat bezala uler dezakegu, ezaguna egiten zaigun eta erraz identifikatzen dugn leku bat hain zuzen ere. Ez lekuak kanporatzen gaituztenak dira, identifikazen zailak, baina identifikatu nahi ez direnak. Ez leku hauetako ugari daude gure hirietan, haien presentzia gure konfortaren aurkakoa izanik eta harekiko errefuxa sortuz.

Ez ibiltzeko kaleak:

Kale izanik ere oinezkoak ez du lekurik aurkitzen,kanporatua da eta bere etxearen pribatutzsunean edota jarduera alienatzalieetan pasatzen du bere denbora.

Ez biltzeko plazak:

Plaza izatez hiriaren traman sortzen den hutsunea da, ez ibiltzeko baizik eta egoteko, abiapuntu edo helmuga. Plaza batek bere izaeraren arabera erakari edo errefuxatu egiten du. Identidaderik gabeko espazio generikoak, elkarekintza oztopatzen dutenak eta sartu baino irtetera gonbidatzen dutenak EZ Plazak izango dira.

Ez oinezkoentzako pasealekuak:

Oinezkoentzako espazioa autoak pasatzen ez direna delaren logikapean diseinatutako ez leku hauek autoari irabazitako lur puxkak gaizki aprobetxatuak dira. Berriro ere elementu baten errepikapenakedo gehiegiren saturazioak identitatea galaraz diezaioke espazio bati.

gALDAREN ERAIKINA

Smart-en City proiektuaren baitan eraikiko den galdara eraikinaren kokapena aldatzean, plaza berean aurki dezakegun aparkaleku eraikin bat aprobetxatzea erabakitzen da. Eraikin honen birgaitze baten bidez, makina funtzional bat baino askoz gehiago den pieza arkitektoniko bat sortuko da, azoan agertuko den plaza berriari aurrez aurre begiratzen diona, iragana balioan jartzen duena, honek balio estetiko edo formal berezirik ez izan arren, eta modernitate kotxu batez janzten duena.

Programa:

1- 1.200 etxebizitza inguru hornitzeko potentzia nahikoa duten biomasa galderak bilduko dituen eraikina.

2- Galdara hauen funtzionamendu, mantenu eta kontrol egokirako beharrezkoak diren elementu guztiak bilduko dituen eraikina.

3- Erreketaren ondorioz sortutako gasekin batera plaza azpian dagoen aparkalekuko airea berrituko duen sistema biltzen duen eraikina.

4- Biomasaren funtzionamendu eta garapenaren inguruan lan egiteko ikerketa bulegoak.

5- Eraikinari izaera publiko eta auzoari irekiaemango dioten gainerako erabilera gehigarriak.

5.1 Jatetxe-taberna

5.2 Erabilera anitzeko aretoa.

Eremua:

Aldabe gizarte etxearen atzeko aparkalekua, 5.000m karratu.

Eraispenak:

Inguruko elementuetatik hurbilegi eta egoera txarrean dauden etxebizitzak.

Arriaga Garajearen alboetako hegalak.

Koroazio kaleko 20. zenbakiko etxebizitzaren komertzioak.

Aparkalekua:

Eraispenekin desagertzen diren 220 aparkaleku plazak ordezkatu eta 140 gehiago gehitzen dituen 3 solairukolurpeko aparkalekua eraiki, sarrera Koroazio kaletik.

Okupazio berria:

Etxesailaren barnealdea perimetralki inguratuko du, erdialdean beso bat irteten zalolarik.

Zokaloa:

Perimetro osoan zokalo eran gorputz bateratu bat sortuko da bere barnean kanpoaldearekin lotura bermatzeko pasabideak utziko dituena eta eraikinetarako sarrerak batuko dituena.

Artefaktuak:

Basamentu honen gainean elementu arinagoak kokatuko dira. Etxebizitzak alde batean eta galdaren eraikina osatuko duen bolumena eraikin nagusian.



Garajean interbentzioa:

Garajea 9 portikok osatzen dute, baina orubearen forma irregularrari egokitzen dira, ortogonalak soilik erdialdeko laurak izanik. Honetaz gain, etxebizitzen sotoak garajeari lotuta daude, eta garajearen erabilera aldaketa aukera berriak ematen dizkio espazio honi. Beraz, proiektuan garajearen zertxa eta egituraren parte bat deuseztatu egingo da, aldi berean etxebizitza blokeen sotoak berreskuratuz eta eraikinari integratuz. Azkenean, tartean bolumen berri bat eraikiko da, garajeko egitura aprobetxatuko duena eta etxebizitzengandik banatuko dena sotoko esparruetara argia eta aireztapena eramanaz.

Gasen Irteera:

Biomasa galdara eta aparkaleku erabilerak uztartzean, gas kutxakor kantitate itzela sortzen da. Bi estrakzio sistema independente euki beharean gas guztiak eraikin bakar batetik ateratzea bilatuko da. Makinaria lurazpian egongo da biomasa galdararen eraikinean, aparkalekuaren muturretako batetik hurbil, eta bertara xurgatuko dira gas zein aire erabili guztia, gerora tximinia bidez kanporatua izanik eraikin berriaren estalkitik.

Gorputz arinaren egitura aktiboa:

Eraikinaren gorputz nagusia ez da berez denbora luzean egoteko toki bat, erakusketa, bazkari edo afari eta antzeko ekintzak burutzen dira bertan, beraz ez da beharrezkoa konfort klimatiko totala bermatzea. Honela, hori bikoitzezko polikarbonatozko fatxadak kolxoi termiko bat eratzen du, neguan eguzkiaren bidez fatxada epelduz eta udan bentilazio bidez hau freskatuz. Honela, barrualdean tenperaturak muturrekoegiak ez izatea ahalbidetzen da, gerora sistema aktiboen bidezko klimatizaziori lan ugari kenduz. Bestetik, norabide biko estalkiko zerbak eguzki panelen bidez energia sortuko du, autokontsumoa eta jasangarritasuna sustatuz.

Terraza:

Lehenengo solairuko jatetxeak terraza bat izango du arriagako atearen kalearen kotan dagoena, plazara jaisten den kalexkatik hain zuzen ere. Honela, tabernara joateko ez da beharrezkoa beheraino jaitxi eta harrera gunea zeharkatzea, zirkulazio independenteak ahalbidetuz.



Makina gela eta Siloa

Biomasa galdarak urtean 5000 T inguruko kontsumoa du eta 5 egunerako erreserba izan behar du beti gutxienez, hortaz siloak dimentsio handiak izan behar ditu, 70 T biltzeko adina.

Depositoa lurazpian egingo da, eta deskarga plazatik egingo bada ere, lurzoru flotagarri sistema bidez uniformeki banatuko dira pelletak deposito osoan zehar.

Galdara gela:

9x8x2.3metroko bi galdara kokatzen dira gune honetan, 5000.kw-ko pitentzia dutelarik bakoitzak. Galdarekin batera hiru ur deposito eta auzo osoarentzako ur bero sanitarioa produzitzeko beharrezkoak diren gainerako elementuak daude spazio honetan.

Gelarako sarrera bakarra eraikinaren iparraldeko hegalean dago, kontrol gunean hain zuzen ere.

Hall-a:

Eraikinerako sarrera plazatik altuera hirukoitzeko espazio baten bidez burutzen da, bertatik gainerako egoitzetara bideratzen delarik bisitaria.

Oinak:

Eskala: 1/500

Behe Solairua: B

Sarrera kale kotatik beheratu egiten da berrerabili den garajearen lurzoru kotaraino iristeko. Solairu honetan sarrera nagusia eta ibxaron gelak eukiko ditugu eraikin berriaren hegoaldean, eta galdara nagusiak zein ur andelak erdialdean, iparaldean, galdararen esparru zerbitzariak daudelarik. Ipar eta hego besoak konektatuz, etxebizitzen soto diren zonan Biomasaren azterketarako zentroaren bulegoak egongo dira, patio ingeles baten bitartez argitasuna lortzen dutelarik.



Lehen solairua. 1

Solairu honetan eraikina bi gorputz independentek osatzen dute. Iparraldean galdararako sarrera nagusia dago, harera gune eta kontrol gelekin. Hegoaldean, gorputz metalikoaren bolumenean sartzen gara jadanik eta lehenengo solairu honetan jatetxe bat izango dugu, terraza publiko batera irteera zuzena duelarik.



Bigarren solairua: 2

Hirugarren solairu honetan espazio diafano bat aurkituko dugu, estalkiko zertxaren bidez zenitalki eta hormen izaera transluzidoari esker horizontalki argiztatuta egongo dena. Areto honetan bilera, erakusketa edota gizarte ekitaldiak burutu ahal izango dira.





Plazaren luzetarako ebaketa:

Ebaketa honetan proiektuaren amaierako itxura ikus daiteke, zokalo erregularizatzailea eta haren gainean kokatutako elementu guztiekin. Plaza ezberdinen izaera ezberdinak ere antzeman daitezke, plaza txiki irekia, zabal zuhaizduna eta zabal irekia, galdaren eraikinaren parean. Graduazio honen bidez egoera zeberdinetan modu ezberdinean erabili daitezken espazio publiko sinple baina identifikagarriak sortzea bilatu da.

Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa

2018-07-05

UPV/EHU